

SAIAKERA IDAZTEKO IRIZPIDEAK

Ebaluazio jarraiazen azken ariketa saiakera (hausnarketa teoriko-kritikoa) individuala egitea izango da. Ariketa honen balioa azken notaren %40-a izango da.

Laburki esanda, ariketa honen xedea ikasgaiaren zehar jorrotutako gaiarekin lotura duen ikerketa edo fenomeno sozial baten inguruan saiakera bat idaztean datza. Horretarako, programaren bibliografia erabili dezakezue (klasean irakurritako 5 derrigorrezko testuak eta klasekideek egindako 5 etnografiaren aurkezpenetaz gain, badaude lan gehiago lagungarriak izan ditzazkezenak ere) edo zuen kabuz bilatutako beste bibliografia ere. Horretaz gain, egindako behaketa lanaren inguruko erreferentzia etnografikoak agertu beharko dira.

Hauek dira jarraibide orokorrak.

Edukien aldetik

Aukeratutako gaiaren inguruko hausnarketa pertsonala idaztean datza.

- **Atal teoriko-analitikoa:** aukeratutako gaiaren inguruan antropologiak ekoiztutako oinarriko argudioak modu argi eta ordenatu batean aurkeztuko ditugu. Adibidez, pobrezia gizarte bazterketaren lehen sustatzaile gisaz hausnartzera banoa, gaia honen inguruko marko teoriko bat sortzea izango da helburua. Horretarako, oinarriko kontzeptuen definizioa eskeiniko ditut, horren inguruan garatutako teoria ezberdinak jaso eta azalduko ditut, ikuspegi historikoa kontutan izango dut, e.a. guzti hau, ondo idatzitako testu integratu baten bidez. Atal hau ondo egin ahal izateko, egile ezberdinen bibliografia modu egoki batean erabiltzea ezinbestekoa izango da.
- **Atal kritikoa:** gaiaren inguruko marko teoriko eta analitikoak sortu eta gero, horren inguruko errebisio kritikoa egingo dugu. Hemen, gaiaren tratuak sortu dizkigun hausnarketa pertsonalak jasoko ditugu, aipatutako korrante teorikoetatik zeinek konbentzitzen gaituen gehien eta zergaitik, jorrotutako fenomeno edo arazoaren konpontzeko zeintzuk irtenbide okurrizten zaizkigu, e.a. Atal honen aspekturik garrantzitsuenak gure iritzien justifikazio etnografikoa izango da, hau da, gure ideiak eta tesiak klaseko etnografiaren bitartez eta norberak aurrera eramanez izandako behaketa lanaren bitartez justifikatuta egotea, alegia.

Formaren aldetik

Saiakera bat lan pertsonala da eta horrexegaitik, ikasleek erabiltutako irizpide propioak positiboki baloratuko dira. Jarraian, bete beharreko oinarriko baldintzak jasotzen dira:

- **Luzera:** saiakerak ezingo ditu 4 orri baino gutxiago izan ezta 6 baino gehiago ere.
- **Letra:** Times new Roman, 11 puntu; lerroen artekoa 1,5koa.
- **Zitak eta erreferentziak:** beste autoreetatik jasotako erreferentziak bisualki argiki agertu behar dira. 2 lerro baino luzeagoak direnean paragrafo aparte batean jasoko dira, tabulatua, letraren ohiko tamaina baino puntu bat gutxiagorekin (10koa, alegia). Zitak 2 lerro edo gutxiago dituztenean, paragrafoan bertan agertuko da baina kakoen artean (“...”). Jasotzen diren zita guztietan erreferentzia bibliografikoa agertu behar da. Bibliografiaren aipamena zelan egin behar den gogoratzeko ikusi GRAL lana egiteko aholkuen txostena.

Zaindu ziten eta erreferentzien trataera zeren hau ez bada ondo egiten 'plagioa' egin dezakegu. Borondatezko nahiz, borondaterik gabeko plagioa suspentsorako arrazoia da.

Aurkezpen epea

Saiakera entregatzeko azken eguna, azterketaren eguna izango da (maiatzaren 27an). Lehenago ere entregatu daiteke edozein tutoretza orduetan. Ez dira onartuko buzoian utzitako lanak irakaslearekin adostutakoa ez bada.